

Osasuna

JABIER AGIRRE

Mamografiaren argi-ilunak (diru kontuak tarteko)

HERRITARREN KULTURA SANITARIOA nabarmen handitu den arren, eta osasun-adituek emandako aholku eta gomendioei normalean nahiko ondo jarraitzen zaien arren, duela gutxi irakurri dudatu batek kezkatzeko arrazoiak eman dizkit. Gure artean arrisku-adinean dauden ehun emakumetik hamazazpik ez omen dituzte mamografiak erregulartasunez egiten, Minbiziaren kontrako Elkartearen Behatokiak argitaratutako txostenaren arabera. Eta hori akats handia da, izan ere mamografia ezinbesteko tresna baita bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarra egiteko.

Inongo zentzurik ez duen horrelako zerbait gertatzeko arrazoiak bila hasi, eta ez nuen taxuzko erantzunik aurkitzen. Nire iritzia da gaur egun emakume gehienek artean aski zabaldua dagoela mamografia proba balia garria dela bularreko minbiziak garai atzemateko, eta proba hori emakumeen adin-tarte gero eta zabalagoan hedatu izanak zerikusia handia duela bularreko minbiziak jota dauden emakumeen bizirau-pen-tasan. Azken hamarkadan %27 gehitu da tasa hori, eta prebentzioak (ez abusatu koipeez, jaitsi pisua behar izanez gero, egin ariketa modu erregularrean, bularra eman zure seme-alabei) izan duen garrantzia baztertu gabe ere, detekzio goiztiarrak ezinbesteko papera jokatzen du gaur egun osasun-politika guztietan.

Dena den, adituek diotenez 40 urte bete aurretik mamografiak ez du argibide handirik eskaintzen, eta



DRUGSTER.INFO

hori oinarri hartuta politika sanitario guztiek edo ia gehientsuenek 40-45 urtetan jartzen dute emakumeetan mamografia proba diagnostiko bezala erabiltzen hasteko adin-muga. Erabaki horretan osasunari dagozkion arrazoiak adina pisu dute, nik uste, arrazoi ekonomikoek. Izan ere, gaur egun diruak agintzen du neurri handi batean osasunean, eta mamografia bezalako proba kontrastatu bat aurrez aipatutakoa baino adin-tarte zabalagoko emakumeetara zabaltzeak ekar dezakeen gastuari ez dio heldu osasungintza publikoak. Oraingoz, bederen.

Badira, nolani ere, proba hori aurreratzeko arrazoi bereziak: familian zuzeneko aurrekariak (bularreko minbiziaren jasan duen amona, ama

edo ahizparen bat) izatea; aurreneko hilekoa 12 urte bete baino lehen eduki izana, edota azkenekoa 55 urte bete ondoren; eta gain-pisu esanguratsua izatea.

Mamografiak egiteko teknologia –bularretako irudiak lortzeko X izpiak aplikatzea besterik ez da, azken batean– asko hobetu da azken urteotan. Gaur egun, duela urte gutxi batzuk baino askoz ere proba eragin-korragoa eta erosoagoa da. Garai batean bularra bi aldiz “zanpatu” behar zen irudi egokia lortzeko. Orain, aldiz, mamografia digitalek “begirada” bakarrean hartzen dute hiru dimentsioko irudia. Eta ehungeruzaz “estalita” egoteagatik, lehen oharkabean pasatzen ziren tumoreak atzemateko modua ematen dute 3D-ko mamografia berriek.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16